

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

47. astea (2025eko azaroaren 17tik 23ra)


Gripe sindromearen diagnostikoek behera egin du denboraldia hasi zenetik lehen aldiz. Bronkiolitis tasak ere gora egin du azken asteetan, atalase-epidemikora gerturatuz, eta COVID-19rena balio baxuetan mantentzen da.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 385,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (383,8/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak behera egin du denboraldia hasi zenetik lehen aldiz. Bronkiolitisaren tasak gora egin du aste honetan eta COVID-19arena baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 67 lagin jagoleen % 55,2 baieztatu da, 26 gripe-birus eta 3 ABS detektatu direlarik, baina ez SARS-CoV-2rik. 7 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 13,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,9/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA tasa eta larrialdietako gripe sindromearena intentsitate maila baxuan mantentzen dira. LMAko bronkiolitisaren (<2 urte) tasa oinarritzko mailan mantentzen da, baina atalase-epidemikotik gertu.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemak, aste honetan, 453 gripe-birus, 70 ABS eta 15 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIaren intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 385,7 kasukoa izan da (383,8/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 334,8/100.000 izan da Araban, 404,4/100.000 Bizkaian eta 379,5/100.000 Gipuzkoan.

AIaren intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIaren tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3042,2 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 2101,0 eta 649,7 kasurekin, hurrenez hurren.

AIaren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 178,5 kasukoa izan da (174,6/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute aurreko astearekin alderatuta ESI batzuetan eta behera, besteetan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 47. astea	Tasa 46. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	353,3	320,5	1,10 (1,00-1,20)
Arabar Errioxako ESI	857,6	560,4	1,53 (1,12-2,08)
Barakaldo-Sestaoko ESI	338,5	365,2	0,92 (0,81-1,05)
Barrualde-Galdakaoko ESI	395,7	400,9	0,98 (0,91-1,06)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	444,4	463,7	0,95 (0,89-1,02)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	406,7	438,9	0,92 (0,83-1,03)
Uribeko ESI	360,3	360,3	1,00 (1,00-1,00)
Bidasoako ESI	309,6	334,0	0,92 (0,77-1,10)
Debararrenako ESI	426,2	377,4	1,12 (0,95-1,32)
Debagoienako ESI	283,7	249,6	1,13 (0,91-1,40)
Donostialdeako ESI	377,2	366,0	1,03 (0,95-1,11)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	386,4	404,0	0,95 (0,82-1,10)
Tolosaldeako ESI	403,0	375,2	1,07 (0,90-1,27)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 36,1 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (37,4/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 328,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (317,5/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 1,0 kasutan mantentzen da (1,8/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 67 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 55,2 baieztatu dira. 26 gripe-birus (20 A(H3) eta 6 A(H1)) eta 3 ABS atzeman dira, baina ez SARS-CoV-2rik. 7 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Denboraldi honetan jasotako eta Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Mikrobiologia Zerbitzuan sekuentziatutako gripe-birus guztiak J kladokoak izan dira, J.2.4.1 azpikladokoak, duela gutxi **K azpiklado** gisa berrizendatu dena.

K azpikladoko birusek 9 mutazio gehiago dituzte hemaglutininaren genean, 2025-26 denboraldiko A/Croatia/10136RV/2023 txerto-birusarekin alderatuz gero. Alde hori gorabehera, Erresuma Batuak (UKHSA) argitaraturiko txertoaren efikazia emaitzek² eta ECDCk berriki egindako txosten batek³ adierazten dute txertoak gaixotasun larriaren aurkako babesa ematen jarraitzen duela, eta, beraz, funtsezko osasun publikoko tresna izaten jarraitzen duela.

Gripe-birusaren positibotasuna altu mantentzen da % 38,8an (% 50,0 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 4,5eraino igo da (% 1,6 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 0,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 10,4koa izan da (% 10,9 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE

	47. astea		46. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	26	38,8	32	50,0	152	32,8
SARS-CoV-2	0	0,0	0	0,0	9	1,9
ABS	3	4,5	1	1,6	7	1,5
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	1	1,5	2	3,1	14	3,0
Adenobirus	0	0,0	1	1,6	3	0,6
Errinobirus	7	10,4	7	10,9	121	26,1
Urtaroko CoV	2	3,0	2	3,1	10	2,2
Enterobirus	0	0,0	1	1,6	5	1,1

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 13,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (14,9/100.000 aurreko astean), 14,6/100.000 gizonetan eta 11,6/100.000 emakumeetan.

² [Flu vaccine providing important protection despite new subclade - GOV.UK](#)


³ [Assessing the risk of influenza for the EU/EEA in the context of increasing circulation of A\(H3N2\) subclade K](#)

**AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 50,8 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 37,6 eta 16,7 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 3,2koa izan da 100.000 biztanleko (3,7/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena 0,1koa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,1 kasukoa 100.000 biztanleko (0,2/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,9koa izan da (% 2,0 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 33,8an mantendu da aste honetan (% 34,8 aurreko astean), eta ABSrena % 8,9raino igo da ere (% 7,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 15,3ra igo da (% 8,8 aurreko astean).

**Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**

	47. astea		46. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	218	0,9	254	2,0	1759	4,2
Influenza	222	33,8	247	34,8	1482	25,8
ABS	191	8,9	214	7,0	1347	3,5

**Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIaren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gaingitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.


AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua


Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gaingitu zela, aste honetan intentsitate maila baxuan mantentzen delarik, goranzko joerarekin.

Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, lehen mailako arretako 2 urtetik beherako bronkiolitis diagnostikoei dagokionez, tasa atalase epidemikoaren azpitik kokatzen da, baina honetatik nahikoa gertu.




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 453 gripe-birus, 70 ABS eta 15 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 453 gripe-birusetatik, 309 A motakoak izan dira, 96 A(H3), 46 A(H1)pdm09 eta 2 B motakoak. 2025/40 astetik 2339 detekzio erregistratu dira, 2329 (% 99,6) A motakoak eta 10 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1314 birusetatik, 749 (% 57,0) A(H3) eta 565 (% 43,0) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko azaroak 27

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza